

## HABEKO Zuzendaritza Batzordea BILERA-AKTA

**Eguna:** 2014-04-29, asteartea    **Hasiera-ordua:** 15:40    **Bukaera-ordua:** 18:15

### **Bertaratuak**

Cristina Uriarte Toledo and., Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua  
Patxi Baztarrika Galparsoro jn., Hizkuntza Politikarako sailburuordea  
Jokin Azkue Arrastoa jn., HPS, Euskara Sustatzeko zuzendaria  
Ana M. de Castro Rubalcaba and., BFAko Euskararen zuzendari nagusia  
Zigor Etxeburua Urbizu jn., GFAko Euskararen zuzendari nagusia  
Andres Iñigo jn., Euskaltzaindiko ordezkaria  
Pedro Lonbide Lizarralde jn., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria  
Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria  
Esther Isasa and., HABEko Didaktika Zerbitzuko ordezkaria  
Joseba Erkizia jn., HABEko zuzendari nagusia

### **Bertaratu ezina adierazi dutenak**

Iciar Lamarain Cenitagoya and., AFAko foru-diputatua  
Gotzon Lobera Revilla jn., HPS, Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaria  
Eneko Oregi Goñi jn., HAAE-IVAPEko Euskararen zuzendariordea  
Ibone Bengoetxea., EUDELeke ordezkaria

### **Aztergaiak**

1. 2013-04-15eko bileraren akta onartzea
2. Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztea
3. 2013ko aurrekontuaren likidazioa
4. 2014ko aurrekontu
5. 2013ko jardueraren memoria
6. 2014ko egitasmoak
7. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum berria
8. Galdera-erreguak

## Esandakoak eta erabakiak

### 1. 2013-04-15eko bileraren akta onartzea

Aipatutako zuzenketak eginda, onartuta gelditu da.

### 2. Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztea

Kide berri bi daude batzordean: batetik, Bizkaiko Foru Aldunditik Ana M. de Castro Rubalcabak ordezkatu du Miren Dobaran; eta bestetik, Araba eta Bizkaiko euskaltegi publikoetako ordezkari berria Pedro Lonbide Lizarralde izango da, Maite Eubaren ordezkari.

### 3. 2013ko aurrekontuaren likidazioa

HABEko zuzendari nagusiak gogora ekarri du urte horretako aurrekontuak ez zituela Lege Biltzarrak onartu eta aurrekoak luzatu egin zirela. Halere, exekuzioari begira proiektatutako aurrekontuekin funtzionatu zen. HABEko aurrekontuaren % 80 euskaltegiei finantzazioari zuzenduta dago. Aurrekontuetan gauzatu gabeko kopuru hori (1.592.058) euskaltegietako jardueraren jaitsierari dagokio; baita Administrazioako langileak euskalduntzeko diru-kopuruak behera egiteari ere. Zorroztasunez kudeatu dira aurrekontuak, soberakinak atal batetik bestera pasatzeke. Horretan lagundu du HABEn ezarrita dagoen Kudeaketa Planak, proiektutakoa hilez hil zenbateraino exekutatzeko den neurtzen baitu.

### 4. 2014ko aurrekontua

Asmo nagusia da euskaltegietako jarduerari eustea. 2014a da EUDELekin sinatutako akordioan salbuespen-egoeratzat jotako azken urtea. Horregatik, udal-euskaltegien partidak igoera nabarmena izan du (818.000 €). Iaz berritutako ikasleentzako diru-laguntza zuzenek 100.000 €-ko igoera izango dute (% 14ko igoera). Bestalde, aurtengo soberakinak 200.000 €-koa baino ez izatea espero dugu (aurrekoa, 1.200.000 €-koa izan zen). Bestalde, nahiz eta 1.000.000 € soberakin gutxiago gehitu, aurrekontu osoaren jaitsiera 350.000 €-ra mugatzeko, ezinbestekoa izan da gure sailak 650.000 € gehiago jartzea.

Aipatzekoa da, aurreraxeago esan bezala, aurrekontuetako gastuen % 79 euskaltegien finantzaketak daramala, eta egitura-gastuek (I. eta II. kapituluak) % 20.

### 5. 2013ko jardueraren memoria

Euskaltegien finantzaketarekin jarritako helburuak bete dira (publikoetan, EUDELekin hartutako hitzarmeneko aurrera eramanez, eta ekimen sozialeko euskaltegien kasuan finantzaketa-mailari eutsiz).

Euskal Etxeei % 15eko jaitsiera egin zaie eskolak emateko laguntza-deialdirako. Dena dela, kasu honetan irakasleak profesionalak ez direnez, hobetsi da indar handiagoa jartzea prestakuntzan pertsonaleko gastuetan baino. Kideen galderei erantzunez, Euskal Etxeen berri emateko tarte

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

bat eskainiko zaio horien funtzionamenduari. Material berezia egin da A1-A2rako materiala erabiltzeko testuinguru anglofonoetan; material horren egokitzapena Maizpide barnetegiak egin du. Irakasleei onlineko prestakuntza ematen zaie, eta horren osagarri bi barnetegi presentzial eratzten dira Argentinan eta bat Estatu Batuetan. Europako Euskal Etxeetako irakasleak hemen bertakoak izan ohi dira; horiekin asteburu bateko barnetegia egiten da. Esan behar da gaur egun euskara ikastea Euskal Etxeetako jardueraren bizkarrezurtzat jo daitekeela.

Arlo horretan dihardu Etxepare Euskal Institutuak ere, baina unibertsitate esparruan irakurletzak antolatzen. Institutu horrek euskara eta euskal kultura lantzen ditu. Euskara ikasteari dagokionez, hasiera maila batera mugatzen da. Azpimarratu beharra dago Euskararen katedrek ere garrantzi handia dutela, hizkuntzari ematen dioten prestigioagatik. Espainiako Instituto Cervantesekiko harremana ere Etxeparek darama.

Euskara-gaitasuna egiaztatzeko bi deialdiak egin dira eta bertan 13.604 ikaslek hartu dute parte. Euskal Etxeetatik 33 azterketarik hartu dute parte Madrilen eta Bartzelonan eginiko probetan. Prestakuntzan 55 saio egin dira eta azpimarratu behar da horietan mila irakasletik gora izan direla partaide, horrek erakusten duelarik sektorean prestatzeko eta hobetzeko dagoen prestutasuna. A2 mailako metodoa sortu eta argitaratzeko egitasmoa definitu eta kontratazio-bidean jarri da, eta autoikaskuntza-ereduetara ekarri dira xede berezietako Dendaketan materiala eta Murgilduz.

Ikasten plataforma 1.9 belaunalditik 2.0ra migratu dugu, eta EJIeko zerbitzuetan ezarri. Esan beharra dago HABE aitzindari izan zela Moodle plataforma erabiltzen. Ikasbil plataformak erregistratutako 11.000 erabiltzaile aktibo ditu gaur egun.

Liburutegi publikoen sarean integratu da HABEko Liburutegia, eta munduko Worldcat eta estatuko Dialnet sareetako partaide da.

## **6. 2014ko egitasmoak**

Adierazle-sistema bat abian jarri nahi da sektorearen jardueraren argazkia emango duena. Euskaltegien jarraipena bi bidetatik egiten da: urtean behin gutxienik euskaltegi guztiei eginiko ikuskapenetik eta euskaltegiek bidalitako memoria eta proiektuen gaineko txostenetatik. Alabaina, material horri ez zaio etekinik ateratzen. Horregatik, sistema berri hori ondo etor dakieke euskaltegiei autoebaluazioa bideratzeko.

Batzordekide batek proposatu du zenbait proiektu aurrera ateratzeko, lankidetzaz bultzatu beharko lukeela HABE udal-euskaltegiekin. HABEko zuzendariak erantzun dio bat datorrela horretan, baina zenbait proiektu aurrera eramateko ezinezkoa dela. Esate baterako, A2ko metodoa egiteko proiektuaren izaera ikusita, lehiaketa publikora jo beharra zegoen. Erakundearen asmoa da A1etik B1 edo B2rako material integrala lehenbailehen argitaratzea, euskara-ikasleen esku jartzeko. Baina beste zenbait egitasmo aurrera eramateko, egoki irizten

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

dio lankidetzaz horri.

HEOCaren gaineko ekarpen eta iradokizun-prozesua ekain aldean bukatu nahi dugu eta uda aldera arau bihurtuko duen agindua onartu; hartara, datorren urtean indarrean egoteko. Era berean, euskaltegiei aholkularitza tekniko eskainiko zaie bere curriculum-proiektua eguneratu dezaten.

HABE eta EHU/UPVk sinatutako lankidetzaz-akordioaren baitan, bi ikasleek jardun dute gurean praktikaldia egiten; bata, egiaztagintzan ikasleek egin ohi dituzten erroreen analisia egiteko, eta bestea, berriz, euskara-ikasleentzako gramatika didaktiko baterako lehen hurbilketa egiten.

Irakasbil plataforma diseinatu eta garatu nahi dugu, irakasleen prestakuntzako erreferente izan dadin, baita komunitate birtuala osatzeko ere.

A2 mailarako metodoa sortzeko prozesua aurrera doa eta, okerrik ezean, aurki esleituko zaio aurkeztu diren 6 enpresatako bati. Bestalde, audio eta bideoak sortuko dira A1-A2 mailetan dagoen hutsunea betetzeko eta Ikasbilen argitaratuko dira.

2013ko egitasmoak ere aho batez onartuta geratu dira.

## **7. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum berria (HEOC)**

Historia pixka bat eginez, esan behar da bateratsu sortu zirela aurreko HABEren kurrikulua (2000) eta Europako Erreferentzia Markoa (2001), eta paraleloan joan direla urte hauetan guztietan. Biek uztartu beharra zegoen, bestela esanda, marko hori geureganatu beharra geneukan. Ondorioz, besteak beste, 4 maila izatetik 6ra pasatuko da curriculum berria, A1 eta A2 mailak aurrekoei gehituz.

Horren harira esan beharra dago maila berriok ez genituzkeela geltoki edo trantsitutzat hartu behar, baizik eta benetako mailatzat, gure egoera soziolinguistikoari men eginez; gaur egun elebakar diren herritar asko oinarrizko euskara maila bat izatera eramateak mesede handia egingo bailioke euskararen erabilerari.

Memento honetan curriculum berriaren behin-behineko erredakzioa egin dago eta orain ontze-fasean dago, sektoreko eta gaiarekin zeresana duten erakundeekin elkarlanean. Halaber, helarazi zaie curriculum berriaren zirriborro hori Nafarroako Euskarabidea erakundeari eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoari, eta elkarrekin aztertuko dugu gaia. Batzorde hau berriro biltzea ere aurreikusita dago curriculum onartzeko, uda partean. Lehentxeago adierazi bezala, asmoa da udan bukatzeko erredakzioa eta, arau bihurtu ondoren, datorren urteari begira indarrean egotea. Mementoz arlo didaktikoari eman nahi zaio lehentasuna, geroago, arlo normatibora iristean, zehaztuko dira beste alderdi batzuk, esaterako, 3. edo 4. maila irakasteko zer maila eskatuko zaien irakasleei, eta abar.

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Curriculum honek, jakina, aldaketak ekarriko ditu berekin HABEko Q87 aplikazioan. Izan ere, euskaltegietan taldeak eta osatzerakoan, azpimailek eta horien konbinaketek protagonismoa izan dezakete, behin betiko urraskako sistema albo batera utzirik. Izan ere, trebetasun sortzaile eta hartzaileen arteko konbinazio bat baino gehiago egin daiteke, gure egoera soziolinguistikoari (eta horren isla den ikasleen egoera linguistikoari) egokiago erantzunez. Hari horri tiraka, eztabaida zabaldu da ea gure errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, egiaztatze-sistema osoa –HABEkoa ez ezik, Administrazioako hizkuntza-eskakizunena ere– ez ote genukeen birpentsatu edo egokitu beharko, eta aukera dagoenean aplikatu orain baino modu irekiagoan. Hori bai, legearen mugak errespetatu beharko dira, esaterako, funtzionarioak-eta aukeratzeko, legeak hizkuntza-eskakizunen sistema betetzeko eskatzen baitu; beste zenbait lanpostutarako edo egoeratarako, ordea, egin daitezke egokitzapenak: goi-mailetako eginkizunetarako 3HE eskatu liteke, baina beste hainbatetan 2HE edo dagokiona.

Bestalde, ea maila guztietan irakastorduak berdinak izan behar duten, zergatik ikasprozesuan aurrera egin ahala klase presentzial horiek ez jaitsi galderari erantzunez, komentatu da curriculum berrian egiten dela bereizketa irakastordu eta ikastorduen artean, alegia, ikasleak euskaltegian egin beharreko orduen eta bere kasa egin beharrekoen artean.

Halaber, zergatik ez den portfolia erabiltzen mailak egiaztatzeko (Europako Markoan jasotzen den bezala) galderaren harira esan da mementoz mailak modu estandarrean egiaztatzen direla, baina egokitu daitekeela egiaztatze-sistema hori ere. Beste galderari bati erantzunez, esan da Nafarroako eta EAeko curriculum horiek berdinak beharko luketela izan, baina administrazio ezberdinak izaki, bakoitzak berea egin duela; nolana ere, ezarritako lankidetzak horretan adostu daitezke leudekeen ezberdintasunak. Baztarrika sailburuordeak espresuki adierazi du zoriendu nahi duela curriculum berria paratzen eta ontzen ari den talde guztia.

## **8.- Galdera-erreguak**

Batzorde Akademikorako kide berria proposatu eta onartu da: Marivi Zubiaga Zornotzako barnetegikoak beteko du orain arte Maizpide barnetegiko Ion Urdangarinek tokia.

Horrenbestez, amaiera eman zaio bilerari.